

SANT ELMO, ITSUMUSTUKA TELMO DEUNA OMEN.—Zumaiako estropalarientzat ez dago estropezurik han eta hemen gailen ibiltzeko. Pozten gaitu horrenbeste bandera irabazteak. Kolore guzietakoak irabazi ere. Hola irabaziak —eta ez diot hau zumaiarrentzat— inork ez ditu erretzen sinbolo berdina izanagatik ere. Arraunlari elkarte batean hain sara-gatua den bandera bera, Udaletxeko balkoian erregai da. Zentzuz, ez da erraz ulertzen; baina, egitez, hala da gertatzen.

Itsumustuan ariz dabilzan abertzaleek ere trofeotzat hartutako banderarik ez bai dute erretzen. Bestalde, Sant edo San ez da hain jatorra; bai ordea Deun edo Done. Sustraiz denak latinaren bidezkoak izanarren. Gainera, zenbaiten ustez, Deungadak atzetik badoaz hainbat jatorrago. Guk ikasten ditugu ikastekoak. Asmatzailerik ez dela gure artean? Gezurra! Zumaiarrak beren trainerarekin erakutsi digute ongi. Telmo Deuna izentzat. Baina Telmo izen propiorik ba ote?

Iragan abuztuan eztabaidarik aski sortu zen horri buruz. «Adabakiak» sail honetara ere galdea egin ziguten. Gauzak ez ziren argituko ez zurituko Luis Larrañaga Bilbao bezalako jakitun batek parterik hartu ez balu. Hala ere, itsumustuan dabilzanak ez dut uste ulertzerik nahi dutenik. Baina, gehienok, orain badakigu Ermo eta Elmo, izenez eta izanez, Erasmo-ren laburpenak direla. Santutegian bi daudela: Kanpanian Diokleziano eta Maximinoren garaian apezpiku eta martirea zena eta Antiokiako martirea. Geroztik bazen Fromistako San Pedro González bat, 1741ean Aita Santuak Santutegirako onetsi zuena, gailego marinelek bere mirakuluegatik Sant Elmorekin parekatua eta honen izena emana.

Zumaiako Sant Elmo ermitan hain debozio handiz gorde-tzen den eta adoratzeko den irudia lehen bietako batena izan-go dela iduritzen zaigu. Baina, hara hor, itxuraz era euskal-

dunagoa dela uste dutenentzat Done Elmo edo Elmo Donea (edo Deuna) behar zuenak Telmo Deuna daroa.

Harrigarriagoa beste honako hau da, zumaiar bati entzuna: «Ba, oker baldin badago hobe; santu bat gehiago».

Galdetzekoa litzake zeruan tokirik zuen ala ez. Dena dela, ikazginaren fede hori ez dakit zer izango den, baina itsumustuan ari direnena gauza bitxia dela badakigu.

*J. S. M.*